

.na, Zu.re bi . tar . tez ge.roi . ris . te . ko Gu.re be .

.ti . ko zo . ri . o . na. Zu.re on. . na. —

I

Aloñapeko arkaitz artean
 Elor arantzan zauden Ama,
 Euskaldunok gaur zu laztantzera
 Etoñi gera Zuregana.
 Zure ondoan maitekor degu
 Gure Jaungoiko Jesus ona,
 Zure bitartez gero iristeko
 Gure betiko zoriona.

II

Ludi ontako arantza beltzez
 Gure biotzak zulaturik,
 Zure laguntza eskatzen dute
 Negar negañez gaur urturik;
 Gure bañengo samintasuna
 Gozatu zazu, ene Ama,
 Zapaldu itzazu gure arantzak
 Ta emaiguzu osasuna.

ARTZAI ONAREN AMARI

Andantino
mf
 (Guziak) Zu . re ar . tal . de . tik O . les da . gi . tzu .

Andantino
mf

geld.
 - gu: La . gun . du gai . tza . zu, Ar . tzai e . ta A . ma.

esk. *geld.*

(Batek)
 Ar . di ta bil . do . tsak mendi al . da . pe . tan

A . la le . ku . e . tan zai . tzen di . tu . zu. Ta

The musical score is written for voice and piano. It consists of four systems of music. The first system is marked 'Andantino' and 'mf', with the vocal line starting with '(Guziak)'. The piano accompaniment follows. The second system continues the vocal line with a 'geld.' (hold) marking and includes the lyrics '- gu:'. The piano part has an 'esk.' (esque) marking. The third system is marked '(Batek)' and continues the vocal line. The piano part has a 'p' (piano) marking. The fourth system concludes the piece with the lyrics 'A . la le . ku . e . tan zai . tzen di . tu . zu. Ta'. The piano part ends with a final chord.

i . zu . tzen ba . di . ra o . tso . ai . kus . te . az

p Zu . re es . ku ma . ki . laz aiz . ka . tzen de . zu. *geld.* *D.C.*

Guziak
Zure artaldetik
Oles dagitzugu :
Lagundu gaitzazu,
Artzai eta Ama.
Batek

I

Iltzeko zorian Jesus zegola,
Gurutze eguñean iltzez josi-ta,
Gure Artzaitako autatu zinduen,
Gu zure kontura utzi ginduen.

II

« Ama, esan zizun, aurki ilko naiz ni :
Nere artaldea bear det utzi ;
Banatu ez dedin zuk zaindu ezazu,
Gaurdanik Artzaya izan zaite zu. »

III

Ordudanik, Ama maite ta laztan,
Oi ! zein Artzai ona zaitugun izan ;
Ardiak zuk ainbat maitatzen dituen
Artzairikan ezta iñun arkitzen.

IV

Bildots naiz ardi bat basatzen bada,
Mendiz-mendi zoaz beraren bila,
Ta arkitu ondoan soñean arturik
Beriz artegira dakarzu pozik.

V

Belar txarretatik saldoa urundu
Ta lafe onetan bazkatzen dezu,
Ta iñoiz ardiren bat gaixotzen bazaitzu
Ardura bereziz sendatzen dezu.

VI

Otsoa artaldera urbiltzen bada
Gosez ardiren bat arapatzera,
An zaude zu erne ardiak zaitzeko
Ta pizti gaiztoa ayenatzeko.

VII

Zure artaldean nai det nik bizi,
Zure ardiekin nai det ibili ;
Oi Artzai ernea ! zai nazazu, a'ren !
Zure magalpean orain ta beti.

AMA-BIRJINA NEKETAKOARI

The musical score is written for voice and piano. It consists of three systems of music. Each system has a vocal line on a single staff and a piano accompaniment on two staves (treble and bass clef). The key signature is B-flat major (two flats). The time signature is 4/4. The lyrics are in Basque. The first system has a vocal line with lyrics 'Ne-ga-ren txu-ka-la-ri-a A-ma guz-tiz sa-min-du-a;' and a piano accompaniment starting with a mezzo-forte (*mf*) dynamic. The second system has a vocal line with lyrics 'Gu-re ne-gar-min gu-zi-tan I-zan gure i-ges-le-ku-a.' and a piano accompaniment with a crescendo leading to a fortissimo (*gald.*) dynamic. The third system is marked '(Batzuek)' and has a vocal line with lyrics 'Kal-ba-ri-o ko men-di-an gal-du-ri-kan Se-mi-a' and a piano accompaniment starting with a piano (*p*) dynamic.

Ne-ga-ren txu-ka-la-ri-a A-ma guz-tiz sa-min-du-a;

mf

Gu-re ne-gar-min gu-zi-tan I-zan gure i-ges-le-ku-a.

gald.

(Batzuek)

Kal-ba-ri-o ko men-di-an gal-du-ri-kan Se-mi-a

p

Nai.ga.be.a . ren e . kaitzak Zi.mel.du zu.en li.li . a,

mf Maite zaitu.gun aurotaz O.roi,A.ma maiti . a, *geld.* O.roi, Ama maiti.a.

Negaraen txukalaria
Ama guztiz samindua ;
Gure negar-min guzitan
Izan gure igeslekua.

I

Kalbario'ko mendian
Galdurikan Semia
Naigabearen ekaitzak
Zimeldu zuen lilia,
Maite zaitugun aurotaz
Oroi, Ama maitia.

II

Zure bi begi ederak
Negaraz gandutzean,
Naigaberik bizienak
Biotz ori ufatzean,
Zure miñak mintzen gaitu
Gu ere biotzean.

III

Bizitzako ordu latzetan
Izan gure euslaria ;
Naigabe ta atsekabetan
Biotz eztilaria ;
Zure Biotza izan bedi
Beti gure kabia.

EROSARIO SANTUA

Andantino

Je . sus o . na . ren A . ma mai . te . a Gra . zi . a di . zut es .

Andantino

. ka . tzen, Bost mis . te . ri . o glo . ri . az . ko . ak La . gun

zai . gu . zu e . sa . ten. La . gun zai . gu . zu e . sa . ten.

gelo

gelo

Aintzazko Siñiskayak

I

Jesus onaren Ama maitea,
 Grazia dizut eskatzen
 Bost misterio gloriakoak
 Lagun zaiguzu esaten.
 Gogo guztiaz esango degu
 Lenengo misterioa;
 Zuzen gaitzatzu zerura beti
 Birjiña biotzekoa.

I

Miñen ondoren, Ama maitea,
 Ikusten dezu pizturik
 Ilen artetik zure Semea
 Eguzki eder egiñik.

Agur-Marien amañekoa
 Aita gureaz batean
 Birjiña eder maite berari
 Esaten asi gaitean.

II

Beñoge egun emen eginda
 Zerura igo zanean,
 Gloriaz bertan para izan zuen
 Aitak eskuiko aldean.
 Agur-Marien amañekoa...

III

Jaun Espiritu Santua bera
 Sutan zerutik zetoñen,
 Apostoluak eta besteak
 Amore doaiz betetzen.
 Agur-Marien amañekoa...

IV

Jesus onak zu ikustearen
Zeruan zoriondurik
Ara zaramaz, gorputz ta arima
Aingeruz inguraturik.
Agur-Marien amaŕekoa...

Pozezko Siñiskayak

Jesus onaren Ama maitea,
Grazia dizut eskatzen ;
Bost misterio pozez beteak
Lagun zaiguzu esaten.
Gogo guztiaz esango degu
Lenengo misterioa ;
Zuzen gaitzatzu zerura beti
Birjiña biotzekoa.

I

Aingeru batek ekaŕi zizun
Zerutikan albistea,
Zugan aragiz jantziko zala
Jaungoikoaren Semea.
Agur-Marien amaŕekoa...

II

Jainkoaren Ama eginda zoaz
Lengusua ikustera ;
Ta Juan santua jayo baño len
Graziaz dana bete da.
Agur-Marien amaŕekoa...

III

Jayo zanean zure Semea
Ama dontzela utzirik
Gelditu giñan guzti-guztiok
Ondasun gozoz beterik.
Agur-Marien amaŕekoa...

IV

Jerusalen go Eliz santuan
Jesus eskeñi zenduan :
Eskein gaitzatzu gu ere orain
Jaunak beretzat ar gaitzan.
Agur-Marien amaŕekoa...

V

Galdu ezkeru bila zenduan
Elizan zure Semea,
Poz onegatik ez bekizu nai
Gu pekatuan iltzea.
Agur-Marien amaŕekoa...

V

Trinidadeak para zinduen
Seme Jaunaren aldean :
Zeruko Eŕegin koroyaturik
Santu guzien gañean.
Agur-Marien amaŕekoa...

Miñezko Siñiskayak

Jesus onaren Ama maitea,
Grazia dizut eskatzen ;
Bost misterio pozez beteak
Lagun zaiguzu esaten.
Gogo guztiaz esango degu
Lenengo misterioa ;
Zuzen gaitzatzu zerura beti
Birjiña biotzekoa.

I

Jesemani'ko baratze artan
Auzpez luŕean jaŕirik
Zegoan Jesus odol ixurtzen,
Biotza beŕiz laŕirik.
Agur-Marien amaŕekoa...

II

Bost mila zigor artu zituan
Gure pekatuakatik :
Zer gaitz aundia dan pekatua
Kontu atera emendik.
Agur-Marien amaŕekoa...

III

Arantza zoŕotz, gogorta latzez
Koroyaturik burua
Nunbait Jesus'ek kendu nai zigun
Gure aŕotasun itsua.
Agur-Marien amaŕekoa...

IV

Gurutze pisu bat lepoan ta
Lapur gaiztoen erdian
Eraman zuten Jesus maitea
Kalbarioko bidean.
Agur-Marien amaŕekoa...

V

Iltzez josirik ai ! gurutzean
Eman du Jaunak bizia,
Gure animak salbatzeaŕen
Ikusi zuan guzia.
Agur-Marien amaŕekoa...

ANGELUS EUSKERAZ

Andante

Andante

p

Onezk.

the.a, Jaungoiko . a . ren Seme . a . ri Emain di . o . zu sor . tze . a . "

I

Aingeru batek Mariari
Diotsa : « Graziaz bethea,
Jaungoikoaren Semeari
Emain diozu sortzea. »

II

« Jainkoaren nahi saindua
Ni baithan dadila egina :
Izan nadila Amatua,
Bainan geldituz Birjina. »

III

Ordu berean Jaungoika
Gizon-haragiaz da jaunzten ;
Oi zer ontasun zinezkoa !
Jauna gurekin egoiten.


IV

Zure Semea othoitz zazu,
Oi Ama maite amultsua !
Izan dezagun zoriona
Ardiesteko zerna.

ANDRE GOYENA


Andantino

(Emeki)



An-dre go - ye - na A-ma on - o - na, A-gur e -

Andantino



(Oñezk)



Andre goyena
Ama onona,
Agur egiten dizugu;
Maitasun-garéz,
Beti biotzez
Laztan izango zaitugu.

Atsegin garbi,
Ehuki ezti
Zera, zu, Ama, lazтана :
Lora liraña,
Bitxi apaña
Apal, zintzo ta otzana.

Bikañena,
Garbiena
Samur samur ta biguna :
Maitagafi,
Zoragafi
Gure Amatxo kutuna.

PUER NATUS

AUR BAT JAYO

Pu . er na . tus in Beth . le . em, al . le . lu . ia:
 Aur bat ja - yo da Be - le - nen al - le - lu - ia:

Un . de gau . det Je . ru . sa . lem, al . le . lu . ia, al . le . lu . ia.
 Or - taz poz - da Je - ru - sa - lem al - le - lu - ia, al - le - lu - ia.

Re' In cor . dis ju . bi . lo Christum natum a . do . re . mus Cum no . vo can . ti . co.
 Bi . otz a . lai ar . giz Kris . to au . ra a . gur . de . za . gun Poz e . re . si be . riz.

gelo

gelo

PUER NATUS

I

Aur bat jayo da Belen'en-Aleluya,
Ortaz poz da Jerusalem-Aleluya aleluya.
R Biotz alai argiz
Kristo Aua agur dezagun
Poz-eresi beñiz.

II

Gabriel'ek len esana-Aleluya,
Bete da; Birjiña Ama da-Aleluya, Aleluya.
R Biotz alai argiz.

III

Jainko Aitaren Semea-Aleluya,
Gizon-aragiz jantzi da-Aleluya Aleluya.
R Biotz alai argiz.

IV

Zeruan erege dana-Aleluya,
Ordago askan etzana-Aleluya Aleluya.
R Biotz alai argiz.

V

Ta aingeruak artzaieri-Aleluya,
Dioste Jauna dala ori-Aleluya Aleluya.
R Biotz alai argiz.

VI

Eguberi-jai octan-Aleluya,
Onetsi dezagun Jauna-Aleluya Aleluya.
R Biotz alai argiz.

VII

Gora Irutasun gurena-Aleluya,
Goiko Jaunari eskerak-Aleluya aleluya.
R Biotz alai argiz
Kristo aua agur dezagun
Poz-eresi beñiz.

IRU ÉREGEREKIN

Andantino

I . ru E . ré . ge . re . kin Mai . te . ki — Go .

Andantino

p

. ra . tzen zai . tu . gu E . ta He . ro . de .

. se . kin gu . da na . i de . gu.

IRU EREGEREKIN

I

Iru E'regerekin
Maiteki
Gorutzen zaitugu ;
Eta Herodesekin
Guda nai degu.

II

Izar bat zen argirik
Aundirik
Zerutik agertu :
E'regeak bertatik
Bereala abiatu.

III

Herodes' en urian
Berian
Auk zuten galdetu,
Ea ango erian
Jesus zenez sortu.

IV

Herodes e'regea
Ber-bera
Kezketan ja'iririk,
Gogoratu bazenez
Beste e'regerik.

V

Herodes' ek belaxe
Kortea
Zuen bi'arazi,
Jakin nai zuelako
Befia obeki.

VI

Herodes' i orduan
Berean
Erantzun zioten ;
Kristok bear zuela
Jayo Bettlehem' en.

VII

E'regek esan die :
« Zoazte,
Ezta sortu emen ;
Ikusten badezute,
Neri esan non den. ».

VIII

Magok ala galanki
Jaraiki,
Zuten bide ura,
Bai eta adoratu
Gero Jesus A'ufa.

IX

Mi'ra zuten eskeindu,
Intzentsu,
U're askoreki ;
Eta itzultzeko joan
Beste bidez gaindi.

X

Jesus, ongi bazaitzu
Iguzu
E'rege ayeki,
(Ahala baduzu-ta)
Zerua orori.

XI

O Birji'na garbia
Maria,
Otoizten zaitugu
Jesus' en eretzean
Balia zakizku.

XII

Jesus zeruetako
Lu'reko
Egile ta Jauna,
A'ren ' gora gailzatzu
Zorion-lekura.

PERU, EKARTZAZU

Andantino

Pe - ru, ekartza - zu Txor, ta bat e - gur, —

Andantino

Aur' au otzak il — ez - te - ien Au - do naiz bil - dur.

I

Peru, ekartzazu
Txorta ba' egur,
Aur au otzak il ezteien
Audo naiz bildur.

II

Ama, ez du ez otsak ilen
Birjiña Maria,
Aur o'ek du berekin
Jaungoiko bizia.

MARI TA JOXEPE

Andante

Or goyan e . txi . an Jozigun a . ti . an, jozigun a . ti . an,

Erantzun al lei . ke Gure maitati . ak? Erantzun al lei . ke Gure maitati . ak.

I

Or goyan etxian
Jo zigun atian,
Erantzun al leike
Gure maitatiak ?

II

Bi eta iru bider
Joxepe'k jotzen du.
Gizona da leiora
Nekez ateratzen.

III

Gizonak leio goitik
Dio erantzuten :
Gabaren ordu onetan
Zer darabiltzu emen ?

IV

Dontzella eder bat dakart
Nerekin aldiari ;
Semia dakarrela
Jesus sabelian.

V

Semia ta Dontzela
Au nola diteke ?
Gezurti aundi ok,
Ortik ken zaitezte !

VI

Estalpean sartu-ta
Aur au ekustean
Goibeldu nintzan baña
Laxter poztu nintzan.

VII

Biotz on izan zazu,
Biotz on, Joxepe :
Gaur gure Jesus onek
Jaio bearluke.

VIII

Onetan amabiak
Dirade etori,
Argitara danian
Seme eder ori.

JOSE DEUNAREN ATSEKABE ATSEGINAK

Andantino

Bi . o . tza atse . ka . be . tu ba . zi . tzai . tzun

p

O . ar . tu . rik Ma . ri . a ze . go . la aur . dun; Ain . ge . ru

ezk.

Oñezkoa

ba . tek a . lai . tu zin . du . en Zu . re bil . du . rak

p

on . da . tu zi . tu . en. Gu . re al . de e . gin o . toitz, Deun aun . di .

geld

- a, Ta i . ri . txi bi . o . tze . ko bake ez . ti . . a.

geld

JOSE DEUNAREN ATSEKABE-
ATSEGINAK

I

Biotza atsekabetu bazitzaizun
Oarturik Maria zegola aurdun ;
Aingeru batek alaitu zinduen
Zure bildufak ondatu zituen.
Gure alde egin otoitz, Deun aundia,
Ta iritxi biotzeko pake ezia.

II

Otzez zegoelarik Jesus askan
Zure biotz samufa lafitu zan ;
Atsegin pozez bete zan ordean
Aingeru-sailak abeska aditzean.
Gu ere il ta gero igo gaitezela
Aingeru-eresiak entzutera.

III

Oi ! zein aundia izan zan zure miña
Jesus odol-ixurtzen ikusi-ta ;
Baña aurtxoaren izen pozgariak
Poztu zituen zure min guziak.
Iguzu, Jose deuna, guri añen !
Iltzea izen gozo ori maiz aipatzen.

IV

Mindu ziñan, Maria ta Jesusen
Oñazeak auretik ezagutzen ;
Tapoztu ziñan aditu orduko
Ola giñala gu zeruratuko.
Ayek ekafi duten zoriona
Guk gal ez dezagula, Jose deuna.

V

Oi ! zeñen samindurik erbestera
Igesi zoaz Jesus gordetzera ;
Bañan alaitu ziñan erbestean
Jaínko-aizunak jausten ikustean.
Egizu hur ontako erbestean
Alai ta pozik bizi al gaitean.

VI

Itzultzean zeranean zure etxera
Aufa ilko ote dizuten bildur zera :
Baña Aingeruak esan zizun bela,
Bildurik gabe bizi zintezkela.
Guri iritxi zaiguzu, Deun maitea,
Jesus ta Mariakin bizitzea.

VII

Miñaren miñaz ziñan erdiratu
Jesus zitzaizunean zuri galdu ;
Ardura aundiaz zenuan billatu
Ta gero nola ziñan pozkidatu.
Beiñere eztezagula galdu Jauna,
Auxe iritxi zaiguzu, Jose Deuna.

LUIS' EN GAZTEENA

Andantino

E . liz lo . ra . te . gi . an lo . re bat sor . tu

Andantino

da bes - te lo . ren al . de . an lore e . der txu . ku .

na Luis ta Gontza . ga . ta . ra da be . re i . ze . na Gaz .

(Onëzkoa)

te . ri guz . ti . e . tan ain mai . te de . gu . na.

geld

ge!d

LUIS'EN GAZTEENA

Eliz-lorategian
Lore bat sortu da
Beste loren aldean
Lore eder txukuna ;
Luis ta Gontzaga' ta'ra
Da bere izena,
Gazteri guzietan
Ain maite deguna.

Gaztetan eskein zayo
Zeruko Amari,
Izan dadin beretzat
Lu'ean gidari,
Bere izate guzia
Nai bai luke garbi,
Zeruan agertzeko
Aingeru lez argi.

Lu'eko a'ixkuaz
Ikaraturikan
Nai luke beti bizi
Amaren besotan ;
Ama o'rek zaitu-ta
Bere itzalpean
Azi da lore eder au
Amaren antzean.

Gazte zoragar'ia,
Begira zaiguzu,
Lu'eko galbidetan
Ezgaiteben galdu ;
Gazten zorakeritan
Ezgaiten naspildu,
Goitikan zure eskua
Luzatu zaiguzu:

MIGEL DEUNARI

The musical score is written for voice and piano. It consists of three systems of music. Each system has a vocal line on a single staff and a piano accompaniment on two staves (treble and bass clef). The key signature is one sharp (F#), and the time signature is 4/4. The lyrics are in Basque. The first system includes a piano dynamic marking 'mf'. The second system includes a forte dynamic marking 'f' and a performance instruction '(Guziek)'. The third system includes a performance instruction 'geld'.

O Ain - ge - ru biz - ko - ré - na, Mi - gel Deu - na,

Bi - zi - tzan gu - ri be - gi - ra; Gu - re bu - rú - kan

O - toitz e - gi - zu Mi - gel Deu - na. A - - men. -

MIGEL DEUNARI

O Aingeru bizko'ena,
Migel Deuna,
Bizitzan guri begira ;
Gure burukan
Otoitz egizu
Migel deuna

Jaunak nai zaitu Lenengo
Migel Deuna,
Bere semeak zaitzeko ;
Gure burukan...

Andre Mariaz zuk dezu,
Migel deuna,
Kopeta lenik agertu ;
Gure burukan...

Betiko deabru ori,
Migel deuna,
Zapaldu dezu gogorki ;
Gure burukan...

O gure Buruzagia,
Migel deuna,
Ziñez zaitu Eliz Ama ;
Gure burukan...

Aingeru zintzo ta azka'ra,
Migel deuna,
Begira iguzu maiteki ;
Gure burukan...

Zaitu gaitzazu gau t' egun,
Migel deuna,
Euskaldunen Zaitzalea ;
Gure burukan
Otoitz egizu
Migel deuna.

JABIER DEUNARI

Andantino

(Botzuek)

San tu bat da ba te ra ko Bes te ra .

ko bes te a; San Ja bier, zu za ra Nai du te nen o ne .

Oñezkoa

ra ko; dago gu re bi zi a ne ke pe naz be te rik:

I gu zu, Ja bier, es ku a Ar tze ko zu re bi zi a .

mf Guziak

mf

geld

geld

I

Balzuek

Santu bat da baterako
 Besterako bestea ;
 San Jabier, zu zara
 Nai dutenen onerako ;
 Dago gure bizia
 Neke-penaz beterik :

Guziak

Iguzu, Jabier, eskua
 Artzeko zure bizia.

II

Agertu nai badezu
 Dezun esku ta indara
 Gure lan ta nekea
 Kendu baizik ez dezu.
 Ai ! oretan asia
 Bazeunde zu gaurdanik.
Iguzu, Jabier...

III

Ez aundi ta ez txikirik
 Arkitzen da munduan
 Ezduenik askotan
 Bear asko zerutik.
 Zuk au badakizula
 Ez degu guk dudarik :
Iguzu, Jabier...

IV

Beartsuak askotan
 Zugana bildu dira :
 Utsik irten ez dira :
 Orelako orduan.
 Baldin zu mudatua
 Ezpazaude geroztik :
Iguzu, Jabier...

V

Nere bear aundiak
 Nakar ni gaur zugana :
 Badakizu zertara ;
 Jakin beza munduak.
 Nik eskatzen dudana
 Betor emen bertatik :
Iguzu, Jabier...

VI

Anitz da len munduan
 Zuk egi zenuena :
 Geldirik egotera
 Sartu zera zeruan ?
 Ezin izain da orkoa
 Dagoana geldirik :
Iguzu, Jabier...

VII

Len ta gero bat zera
 Ongi-egilea beti :
 Ez aften ! uka niri
 Orain bear dudana.
 Uste dut ez nazula
 Utziko ni galdurik :
Iguzu, Jabier...

VIII

Badakizu bizia
 Ematen il zenari :
 Baita beste edozeini
 Bear duen guzia.
 Nik ere nai dudana
 Uste dut gaur zugandik :
Iguzu, Jabier...

IX

Itsasoz ta legorez
 Zeinbat on egin dezu :
 Zerbait utzi badezu
 Izandu da nai gabez.
 Zuk nai dezun guzia
 Nai du Jaunak gogotik :
Iguzu, Jabier...

X

Argia bear badu
 Itsasoko tristeak,
 Laster zure eskatzeak
 Eguzkia lotzen du.
 Ez bat galdu dedila,
 Izan gabez argirik.
Iguzu, Jabier...

XI

Eretzea suari
 Kendu zenion noizbait :
 Ez diozu utzi nonbait
 Gatzik ur gaziari.
 Bekatuaren gazia
 Ken baledi gugandik :
Iguzu, Jabier...

XII


Alaba seme egiña
 Ama batek nai zuen :
 Zure elizan egin zen
 Ark eskatzen zuena.
 Guk eskatzen deguna
 Orain biotz guzitik :
Iguzu, Jabier...

XIII

Bi toki zuk batetan
 Bete zenituen len :
 Arki zaitez gaur emen
 Or zaudela zeruan.
 Zu bazatoz gugana
 Ez da geroz nekerik :
Iguzu, Jabier...

ZEREN BILHA ZABILTZA

Andantino




Ze . ren bi . ĩa za . bil . tza, An . dre Ma . da . le . na? Zerk


Andantino



Oñezk.



ho . la za . ra . ma . tza de . ser . tu . an bañ . na?



— Zeren bilha zabilta,
Andre Madalena ?
Zerk hola zaramatza
Desertuan barna ?

— Jauna galduzgeroztik
Ezdut gogorikan,
Gauza guziak ditut
Higuin mundu huntan.

— Zer idurikoa da
Zuk diozun Jauna ?
Indazu zenbeit marka,
Ene Andre ona.

ZEREN BILHA ZABILTZA

— Hura da xuri-gorri
Aita-amen bakhoitza,
Jaingo gizon egina,
Ta ene bihotza.

— Gurutzean josirik
Ezduzu aditu
Juduek nola zuten
Hil-hobian sarthu ?

— Neronek ikhusi dut
Amaren aldean
Enegatikan hila
Gurutze batean.

— Zer igurimen duzu
Beraz harenganik
Gaiztagin baten gisa
Hil denaz geroztik ?

— Oi ene Jaungoikoa,
Zeru-lurén Jauna !
Mundutik beira nazu,
Ez nazan engana.

— Oi ! Andre Madalena,
Ez izan eroa ;
Oraino har ezazu
Leheneko ospea.

— Hire ospe lizunak
Aski jaraikirik,
Ongi niagok orai
Ufikiz betherik.

— Gurutzeko minetan
Ganbiatzen nauzu ?
Ene gozoak hola
Gutiesten tutzu ?

— Gurutzean tut orai
Ene atseginak,
Jaunak hartuz geroztik
Han nigatik minak.

— Utzazu gurutzea,
Zato enekien ;
Desertuan ezduzu
Jauna kausituren.

— Nigar eginen diat
Hik eragin hutsaz,
Agian kausituren
Jauna bide huntaz.

— Zerueta joan zen ;
Ez zare orhoitzen
Aitarene eskuinetik
Ez dela urfuntzen ?

— Zein haizen gezurtia
Hor duk erakusten,
Orai huen gaiztagin
Bat zela cfaiten.

— Nigarak behar dire,
Badakit, horfentzat ;
Ordean askiko da
Hiltzean ihintz bat.

— Denbora sobra diat
Hirekien galtzen,
Banioak mortura,
Ez duk mintza zeren.

— Oi ! Andre Madalena,
Hitz bat adi zazu ;
Bakharik ez ez zohaz,
Ni galduko nauzu.

— Agur bethi-bethikotz,
Mundu gezurtia :
Nitan agertuko duk
Hire belzkeria.

Non zarete, mortuko
Abere ihiziak ?
Othoi ! emadatzue
Zuen intziriak.

Nahi dut orai bertan
Has ditén nigarak,
Garbi detzadan ongi
Egintudan hutsak.

Zu, ene xuri-gorri,
Aita-amen bakhoitza,
Zu ikhus arteraino
Hemen dut egoitza.

KRISTAU IĒN ALDE (★)

Gar-bi-to-kin ne-ga— rez dauzka-zu, Miñ ga-ra-tzez

¡oi! Zu-ri be-gi-ra O-ña-ze-tan, A-ma, es-tu-tu ta;

E-rú-ki-tu Zuk o-yen sa-mi-ña, ¡O — Ma-ri-a! —

geld

geld

KRISTAU ILEN ALDE

I

Garbitokin nega^{fez} gauzkazu
Min garatzez oi ! Zuri begira
Oñazetan, Ama, estututa ;
E^rukitu zuk oyen samiña,
O Maria !

II

Gure e^ruen garbikari zeran
Ama laztan guztintzat maitena
Beti miñez dauden il gaxoei
Lagundu zuk, A Lagunik onena,
O Maria !

III

Ama, zuri begira daude ilak
Min gogorak igesi nayakan ;
Alai beti zurekin baturik
Nai dute- ta poztu zure baitan,
O Maria !

IV

Gogo gaxok laguntzen leyatu ;
Ene Ama, oyek e^rukitu ;
Bere zauriz Josu'k senda ditzan
Semeari, Amatxo, a^rendu,
O Maria !

V

Zure deyez daudenen ustea,
Zuregana gatzkitzu, Ama ;
Anai oyek Josu'ri eramán,
A^ren anai maite dituzu-ta,
O Maria !

VI

Gure malko e^rukari oyek
Epaileak bai ote dakuski ?
Ene Ama, malko oyez suak il,
Begitxo oyek bigundu Josu'ri
O Maria !

VII

Azkeneko epai aldi artan,
Jainkoaren asaré, gogo^ran
Epailea leiaz bai a^rendu
Bere baitan a^ren ! artu gaitzan
O Maria !

ARKIBIDEA

N^o

Pages

SAKRAMENTO DEUNA'RI

1. Cor Jesu Sacratissimum — Jesusen Biotz Gozoa	1
2. Adoro Te devote — Agur, Agur Jainko	2
3. Ave verum — Agur Gorputz	4
4. Oi Jesus	6
5. Bai dala zori andia	8
6. Nai al dezute jakin	10
7. Oi gauza ařigafi	12
8. Jauna artu ondorako	14

GARIZUMARAKO

9. Attende, Domine — Jauna, adi gaitzatzu	16
10. Parce Domine — Jauna barkatu	17
11. Atoz Espiritua	18
12. O gizaki gaitzetsia	20
13. Gizona, non dek zuhurtzia ?	22
14. Zer dirade gure egunak ?	24
15. O Jesus gurutzeria	26
16. Esnatu adi, pekataria	28
17. Gurutze bidea	30

ANDREDENA MIREN'I

18. Salve Regina — Agur Maria	32
19. O Miren Deuna	34
20. Andre Mari gozoa	36
21. Atsekabe garatzetan	37
22. Poz ekarlea	38
23. Oraitik, oi Ama	39
24. Ave Maris stella	40
25. Arantzazuko Ama'ri	42
26. Artzai onaren Ama'ri	44
27. Ama Birjiņa Neketakoari	46
28. Eřosario santua	48
29. Angelus euskeraz	50
30. Andre goyena	51

EGUBERIRAKO

31. Puer natus — Aur'bat jayo da	52
32. Iru Eřegerekin	54
33. Peru, ekarřazu	56
34. Mari ta Joxepe	57

DEUN'EN JAIETARAKO

35. Jose Deuna'ren Atsekabe — Atsegiņak	58
36. Luis'en gazteena	60
37. Migel Deuna'ri	62
38. Jabier Deuna'ri	64
39. Zeren bilha zabiltza	66
40. Kristau ilen alde	68







